



GOIZUETAKO UDALA

**GOIZUETAKO ANDRES NARBARTE "XALTO" ESKOLA PUBLIKOAREN GARBIKETA
ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA TEKNIKOAK**

1. OBJEKTUA- Kontratu honen objektua Goizuetako Andres Narbarte "Xalto" Eskola Publikoaren garbiketa da.

2. BETEBEHAR MATERIALAK- Kontratuaren barnean ondoren aipaturiko lokalak garbitasunezko egoera on batean mantentzea sartzen dela ulerturik, ezinbestekoak dira honako betebeharrak:

a) Goizuetako Eskola Publikoko gela eta lokalen garbiketa

2.1.Lurrak

Sarrerako atariak (vestíbulos), pasilloak, eskailerak, eta Haur Hezkuntzako bi ikasgelak egunero erratza pasa eta fregatu beharko dira, goizeko bederatzietarako garbiak egon beharko dutelarik. Era berean, ikasgela hauetako alfonbrak eta psikomotrizitate gelako alfonbra sakonki garbitu beharko da gutxienez astean behin.

Gainontzeko ikasgeletan, entzun-ikusmenezkoa (audiovisuales) barne, egunero pasa beharko da erratza/mopa eta gutxienez astean bi aldiz fregatuko dira.

Fregatzeko kloraturiko lixiba erabiliko da.

2.2.-Komonak eta dutxak

Komonak higie eta osasun baldintza ezinhobeetan mantentzeko egunero garbitu beharko dira sakonki astelehenetik ostiralera, kloraturiko lixibarekin.

Dutxak egunero garbitu beharko dira, astelehenetik ostiralera, kloraturiko lixibarekin. Asteburuan kirol ekintzaren bat egongo balitz ere garbitu beharko dira, astelehena goizeko bederatzietarako garbiak edukitzearren.

2.3.-Sabaia eta Hormak

Sabaia, horma, ate, zokalo, erlaitz (cornisa) eta kristalen garbiketa momentu bakoitzeko beharren arabera egingo da, lehenetsunez oporraldian garbituko dira.

2.4.-Espaloiak, patio eta kirol instalakuntzak

Hauen garbiketa beharrezkoan arabera egingo da. Frontoia gutxienez astean behin garbitu beharko da.



GOIZUETAKO UDALA

2.5.-Hondakin eta zaborrak

Ikastolako jardueraren hondakinak egunero eta patioko zakarrontzietan utzitako zakarrak beharraren arabera, zabor-poltsetan bilduko dira eta gero hauek kontainerretara bota beharko dira.

Barruan tapa daukaten bi zabor kubo egongo dira, zaborra erretiratu izaten den arte bertan bildu beharko delarik.

2.6.-Mahaia, aulkiak eta armairuak

Beharraren arabera garbituko dira.

2.7.-Ikastolako jangela

Egunero garbitu beharko da, astelehenetik ostiralera, bazkaltzeko ordurako garbia egon beharko du.

b) Zainketa (Bigilantzia)

Esleituaren betebeharra izango da ikastola barrutia kontrolatzea eta zaintzea.

c) Kontserbazioa eta mantentzea

Esleitua izango da berogailuaren pizte eta itzaltzearen arduraduna, eta baita berogailuaren mantentzearena ere.

Ikastolako Zuzendaritzak materialaren hauste edo izorratze bat egon dela ikusten duenean, esleitua konpontzera beharturik egongo da bere ahalbideen barruan, konponketa hori egitea posible ez balu eta teknikari edo espezialistaren bat beharko balitz, Goizueta Udalarik jakinaraziko dio.

d) Pilota Plaza

Pilota plaza astean behin garbituko beharko da. Astelehen patio ordurako garbia egon beharko da.

Frontoia, eskola orduetatik kanpo, kirol jardueretarako edo kultur ekintzetarako erabiliko balitz, esleituaren betebeharra izango da, argien pizte eta itzaltzearen kontrola.

e) Zuzendaritza eta Ikuskaritza ahalmena

Kontratzen den zerbitzuaren egikaritzaren zuzendaritza eta ikuskaritza Udalarik dagokio, Udalak instrukzioak eman ahal izango dizkio esleituari, zuzenean edo Eskolako zuzendaritzaren bitartez, beti ere kontratu honen baldintza pleguen eta kontratuak arautzen dituen arautegiaren aurka ez doazen bitartean.



GOIZUETAKO UDALA

3. GARBIKETAK BURUTZEKO ORDUTEGIA.- Garbiketa lanak eskolako ordutegia eta eskolako instalakuntzetan egiten diren eskolaz kanpoko jardueren ordutegia kontuan hartuta egin beharko dira, hauen garapena eta martxa normala ez eragozteko. Baldintza hau bete ahal izateko, Udaletxearekin eta eskolako zuzendariarekin beharrezkoak diren komunikazio harremanak mantenduko eta bermatuko dira.

4. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK: Aipatutako ikastolaren zainketa, kontserbazio eta mantentze lanak, hau da, atezain lanak, era egokian egin ahal izateko besteeikiko harremanei dagokionez, zerbitzua prestatu behar duenak euskaraz hitz egiten jakitea beharrezkoa da.

ERANSKINA

Esleituaren kontura izango dira garbiketarako behar diren produktu, tresna eta erabilgailuak (berak ekarri beharko ditu eta berak ordainduta).

Ur hornikuntza, argia, eta indar elektrikoa, eskuak garbitzeko xaboia, komoneko papera eta eskuak lehortzeko papera Udalaren kontura izango dira.

Bestalde Udalak ezarriko du materiala eta tresneria gordetzeko lekua.

DILIGENTZIA: Ziurtatzeko baldintza teknikoen plegu hau 2019ko irailaren 3an ospatutako Osoko bilkuran onartu da.

ALCALDE

Unai Miranda Berroeta

GOIZUETAKO UDALA


SECRETARIO

Unai Loiarde Ansa